
1.2. JUSTIFIKAZIOA: EGINBEHAR MORALA, LEGE-ARLOKO BETEBEHARRA

Pertsona transexualen hezkuntzaren, gizartearen eta osasunaren arloetako premiei arreta espezifikoa ematea eginbehar morala ez ezik, lege-arloko betebeharra ere bada. Eta eginbehar eta betebehar horrek gu guztiok hartzen gaitu eraginpean, baina zerbitzu publikoei bereziki eskatu behar zaie horiek betetzea.

Pertsona transexualen kolektiboari ez bazaio arreta espezifikoa ematen, bioetikaren oinarritzko lau printzipioetako bakoitza urratzen da: kalterik ez egitea, justizia, ongintza eta autonomia. Hezkuntzaren, gizarte-zerbitzuen eta osasunaren arloetako profesional garen aldetik, pertsona guztiekiko honako eginbehar moral hauek ditugu: kalterik ez egitea, begirune eta errespetu berdinarekin tratatzea, ahalik eta mesede handiena egitea, eta hori guztia haien autonomia, nortasuna libreki garatzea eta haien bizi-proiektua errespetatuta eta aintzat hartuta. Eginbehar horiek unibertsalak eta baliozkoak dira edozein pertsonarentzat, baina benetan aplikatzen eta betetzen al ditugu pertsona transexualekin izaten ditugun hartu-emanetan? Galdera moral horixe egin behar diogu geure buruari pertsona transexualei ematen diegun arretan egiten dugun lana aztertzeko.

Pertsonen duintasuna errespetatzea oinarritzko giza eskubidea da, eta norberaren autodeterminazio librea errespetatu behar da, betiere besteren autodeterminazio libreari eragiten ez badio. Norberaren autodeterminazioaren dimentsio oso garrantzitsu bat sexu-nortasuna da. Jaiotzean sexu-nortasun bat esleitzen zaigu guztioi, baina zenbait pertsonak ez du sexu-nortasun hori sentitzen eta pertsona horiei beren nortasuna ukatzen diegunean beren bizi-proiektua libreki garatzeko prozesua negatiboki baldintzatzen ari gara. Gaur egun ere, transexual izate horrek berak kaltebera, ahul bihurtzen ditu.

Kalteberatasuna etikaren jatorrian dago. Ez da printzipio moral bat, gizakiaren dimentsio baten egiaztapena baizik. David Hume-k *falazia naturalista* agertu zuenean esan zuenez, “*den horretan*” oinarrituta ezin da “*izan behar duen hori*” eskatzera igaro: gu kalteberak, ahulak izateak ez du esan nahi kaltebera edo ahul izan behar dugunik. Horregatik kalteberatasun edo ahulezia hori desagerrarazteko edo, gutxienez, mugatzeko erantzukizuna geuri dagokigu. Kalteberatasunak erantzukizuna eskatzen du, eta erantzukizunaz mintzo bagara, eginbehar moralaz ari gara³.

Erantzukizun hori baliatzeak hezkuntzaren, gizartearen eta osasunaren arloetako politika publiko espezifikoak garatzea eskatzen du. Politika publikoetan, berdintasunaren printzipioak ez du esan nahi guztioi berdin eman behar zaigunik, baizik eta premia berdina dutenei gauza berdinak eman behar zaizkiela; bestela esateko: bakoitzari norberaren premiaren arabera ematea.

Baina, lehen ere esan dugunez, pertsona transexualei arreta ematea eginbehar morala ez ezik, lege-arloko betebeharra ere bada. Hain justu, Gida hau idazteko agindua *ekainaren*

³ “Euskadiko osasun-sisteman pertsonen Eskubideei eta Betebeharrei buruzko Adierazpena”: 50. or.
http://www.osasun.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/derechos_deberes/es_1257/adjuntos/Declaración%20Derechos%20y%20Deberes.%20Fundamentación%20ética%20y%20jurídica.pdf

28ko 14/2012 LEGEaren (transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa) III. kapituluko (“Transexualen osasun-arloko arreta”) 9. artikuluan jasota dago.

Pertsona transexualen egoera oso konplexua da, eta egoera horrek berak arreta integrala eskatzen du, erregistroetako aldaketez haratago doana (Espainiako Estatuan martxoaren 15eko 3/2007 Lege bidez arautu zen, baina adingabeak kanpoan utzi zituen). Horregatik, Eusko Legebiltzarrak ekainaren 28ko 14/2012 Legea onartu zuen, pertsona transexualei arreta integrala emateko asmoz; halaber, Legeak helburu du transexualei, transexual izateagatik edo izate horrek sortzen dien egoera pertsonal zein sozialagatik, legedian oraindik ere eragiten zaizkien bereizketa mota guztiak gainditzera bidean laguntzea eta aurreratzea, eta, horrekin batera, Konstituzioan aipatzen diren zenbait printzipioren arau-garapena hobetzea, alegia, diskriminaziorik eza, nortasunaren garapen askea eta pertsonaren, familiaren eta taldearen babes sozial, ekonomiko eta juridikoa jasotzen dituzten printzipioen arau-garapena hobetzea, horretarako aplikatzekoa den araudia gizarteak bizi duen garai historiakoari egokituz.

Nazioartean, Europako Legebiltzarraren 1989ko irailaren 12ko Ebazpena (transexualen diskriminazioari buruzkoa) nabarmendu behar dugu; ebazpen horretan, pertsona bakoitzak aitorturik dauka gizaki gisa duen identitatearen zehaztasunak ezartzeko eskubidea, baina horrekin batera, estatuei zenbait neurri hartzeko eskatzen zaie, eskubide hori garatu ahal izateko. Neurri horien artean hauek dira aipagarrienak: sexua aldatzeko tratamenduak kasuan kasuko osasun-sistema nazionalen sartzeari, gizarte-laguntzak ematea sexu-egokitzapena dela-eta lana edo etxebizitza galdu duten pertsona transexualei, kontsultategiak jartzea pertsona transexualentzat, autolaguntzarako erakundeei laguntza finantzarioa ematea, neurri bereziak hartzea pertsona transexualek lana izan dezaten sustatzeko, eta jaiotza-agirian eta nortasun-agirian izena aldatzeko eta sexu-marka inskribatzeko eskubidea onartzea.

Halaber, Europako Kontseiluaren Batzarrak 2015eko apirilaren 22an onartutako Ebazpena (Europar transexualen diskriminazioari buruzkoa) ere bereziki garrantzitsua da; ebazpen horretan, Estatu kideei eskatzen zaie autodeterminazioan oinarritutako prozedura bizkor, garden eta irisgarriak ezar ditzatela pertsona transexualei dokumentazio ofizialean izena eta sexua aldatzeko aukera ematearren, eta prozedura horiek baliatu nahi dituzten pertsona guztien eskura jar ditzatela, haien adina, osasun-egoera, eta egoera ekonomikoa edozein izanik ere. Horretaz gain, esterilizazioa eta derrigorrezko bestelako tratamendu mediko batzuk indargabetzeko ere eskatzen zaie, baita osasun mentaleko diagnostikoa ezar dezatela ere, pertsona baten sexu-nortasuna aintzatesteko aldez aurretik egin beharreko ezinbesteko lege-betebehartzat. Bestalde, sexua berriro esleitzeko tratamenduei eta osasun-arretari dagokienez, sexua berresleitzeko prozedurak –hala nola, tratamendu hormonalak, ebakuntza kirurgikoak eta arreta psikologikoa– pertsona transexualen esku jartzeko eskatzen zaie Estatuei, eta osasun-araubide publikoak ordainduko dituela bermatzeko; eskatzen zaie, halaber, pertsona transexualak esanbidez sar ditzatela buru-hilketen prebentziorako ikerketa-lan, programa eta neurrietan; pertsona transexualei arreta medikoa emateko beste eredu batzuk azter ditzatela, baimen informatuan oinarrituta; eta nazioan erabiltzen diren gaixotasun-sailkapenak alda ditzatela, pertsona transexualak –adingabeak barnean hartuta– gaixo mentaltzat hartuko ez direla bermatzeko baina betiere beharrezkoak diren tratamendu medikoetarako sarbidea bermatuta, estigmatizaziorik gabe.